Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Foru-arau honen aurreproiektua: Foru Araua, zeinaren bidez tributu-neurriak onartzen baitira.

Anteproyecto de Norma Foral por la que se aprueban medidas tributarias.

Ogasun eta Finantzen foru-diputatuak Bizkaiko Foru Aldundiari proposatzen dio foru-arau honen aurreproiektua onartzeko: Foru Araua, zeinaren bidez tributu-neurriak onartzen baitira.

La diputada foral de Hacienda y Finanzas propone a la Diputación Foral de Bizkaia la aprobación del Anteproyecto de Norma Foral por la que se aprueban medidas tributarias.

Ogasun eta Finantzen foru-diputatua
La diputada foral de Hacienda y Finanzas
ITXASO BERROJALBIZ ZABALA

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

FORU-ARAU HONEN PROIEKTUA: FORU ARAUA, zeinaren bidez tributu-neurriak onartzen baitira.

PROYECTO DE NORMA FORAL por la que se aprueban medidas tributarias.

Foru-arau honek 16 artikulu ditu, eta, haien osagarri, zenbait xedapen gehigarri eta iragankor ageri dira. Xedapen horien bidez, aldaketak egiten dira zenbait zergaren erregulazioan, indarrean dagoen erregulazioaren alderdi jakin batzuk eguneratzeko eta hobetzeko, bai eta Bizkaian zergen araudiaren aplikazioan segurtasun juridikoa indartzeko ere, administrazio- eta jurisprudentzia-irizpideak txertatuz, irizpide horiek erabat errotuta baitaude eta, beraz, gaur egun aplikagarriak baitira.

La presente Norma Foral se compone de 16 artículos, complementados con varias disposiciones adicionales y transitorias, que introducen modificaciones en la regulación de diversos impuestos a fin de actualizar y mejorar aspectos puntuales de la regulación vigente, así como de reforzar la seguridad jurídica en la aplicación de la normativa reguladora de los impuestos en Bizkaia, mediante la incorporación de criterios administrativos y jurisprudenciales, que se encuentran sólidamente acuñados y son, por tanto, de aplicación en la actualidad.

Hasteko, transbertsaltzat jo daitezkeen aldaketei helduta, batik bat lau jarduketa-eremu bereizi ahal ditugu, beren ondorioak Bizkaiko tributu-sistemako hainbat figuratara hedatu eta, horrenbestez, eragindako foru-arauetan modu homogeneoan txertatzen diren heinean.

Comenzando por las modificaciones que pueden calificarse como transversales, en la medida en que extienden sus efectos a varias figuras del sistema tributario de Bizkaia y, por ello, se incorporan de manera homogénea en las distintas normas forales afectadas, podemos diferenciar fundamentalmente cuatro ámbitos de actuación.

Lehenengo eta behin, izatezko bikoteak zerga-ondorioetarako aintzat hartzeari dagokionez egindako aldaketak, arau hauei guztiei eragiten baitie: Zergen Foru Arau Orokorra, Pertsona Fisikoen Errentaren

En primer lugar, las modificaciones relativas a la consideración de parejas de hecho a efectos fiscales, que afecta a la Norma Foral General Tributaria, la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko Foru Araua, Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua eta Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-sistema Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara egokitzeko Foru Araua. Horrela, foru-arau honek sartutako aldaketen bidez, eragindako foru-arauetan izatezko bikoteak aintzat hartzeko jadaneko irizpidearekin batera (zerga-ondorioetarako halakotzat hartuko dira Izatezko Bikoteak Arautzeko Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutakoak), Bizkaiko zerga-administrazioa aplikatzen ari den irizpide hau sartzen da arau-testuetan: izatezko bikotearen parekotzat hartzea, zeina administratiboki euskal legeriaren arabera eratua baita, beste autonomia-erkidego batzuetako, Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako, Físicas, la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, la Norma Foral del Impuesto sobre el Patrimonio, la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, la Norma Foral del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, la Norma Foral del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, la Norma Foral reguladora del régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, la Norma Foral del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, la Norma Foral sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana y la Norma Foral de adaptación del Sistema Tributario del Territorio Histórico de Bizkaia a las peculiaridades del Derecho Civil del País Vasco. Así, mediante las modificaciones incorporadas por esta Norma Foral, junto con la vigente consideración de pareja de hecho en las distintas normas forales afectadas, en el sentido de considerar como tal a efectos fiscales a la constituida conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las parejas de hecho, se incorpora a los textos normativos el criterio que está siendo de aplicación por la Administración tributaria de Bizkaia consistente en considerar asimilada a la pareja de hecho, constituida administrativamente conforme a la legislación vasca, a las parejas de hecho

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Europako Esparru Ekonomikoko edo beste herrialde batzuetako erregistro publikoetan modu berean eratu eta inskribatuak, EB Itunaren diskriminaziorik ezaren eta oinarrizko askatasunak errespetatzearen printzipioei jarraikiz. Horrela, erantzun egiten zaio Europako Batzordeak zentzu horretan egindako errekerimenduari.

constituidas e inscritas de forma análoga en registros públicos, tanto de otras comunidades autónomas, como de otros Estados miembros de la Unión Europea, del Espacio Económico Europeo o de países terceros, en virtud de los principios de no discriminación y de respeto a las libertades fundamentales del Tratado UE, dando así respuesta al requerimiento efectuado por la Comisión Europea a tales efectos.

Nabarmendu beharreko aldaketa transbertsalen bigarren multzoaren arrazoia desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozeduraren araudian egin berri diren aldaketak dira (urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretua, zeinaren ondorioz indargabetuta geratu baita abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretua, prozedura hori lehen arautzen zuen araua, hain zuzen). Arau substantiboa aldatu izanak berekin ekarri du sakon erreformatzea desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura, eta horrek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudia egokitzea eskatzen du, lan-etekinen hobariari eta desgaitasun eta mendekotasunagatiko kenkariari dagokienez, bai eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren araudia ere, desgaitasunagatiko salbuespenari dagokionez. Aldaketa horiek eginez, orain arte indarrean egon diren zerga-

El segundo grupo de modificaciones de carácter transversal trae causa en las recientes modificaciones operadas en la normativa reguladora del procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de discapacidad, mediante el Real Decreto 888/2022, de 18 de octubre, y consiguiente derogación del Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre, que lo regulaba anteriormente. Esta modificación de la normativa sustantiva ha supuesto una reforma profunda del procedimiento de reconocimiento, declaración y calificación del grado de discapacidad, que requiere adecuar la normativa del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en lo relativo a la bonificación del rendimiento del trabajo y a la deducción por discapacidad y dependencia, así como la normativa del Impuesto sobre Vehículos de Tracción mecánica, en lo relativo a la exención por

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

tratamenduei eutsi nahi zaie, ahal den neurrian, balorazio-sistema berrira egokituta. Aldaketa horiek, gainera, araubide iragankorrak sartzea eskatzen dute, zerga-onura horiek lehengo baremoen arabera egindako balorazioen bidez aplikatu ahal izateko, betiere desgaitasunaren beste baloraziorik egiten ez bada.

discapacidad. Con las modificaciones realizadas se pretende mantener, en lo posible, los tratamientos tributarios que hasta ahora se encontraban vigentes, adecuándolos al nuevo sistema de valoraciones. Estas modificaciones exigen, además, la inclusión de regímenes transitorios para posibilitar la aplicación de dichos beneficios tributarios atendiendo a las valoraciones efectuadas con arreglo a los antiguos baremos, siempre que no se produzca una nueva valoración de la discapacidad.

Hirugarrenik, zergapetze pertsonalaren aitorpenarekin edo autolikidazioarekin baliatu behar diren aukeren araubidea malgutzearen ondoriozko aldaketak nabarmentzen dira. Izan ere, egindako aukera aldatu egin daiteke aitorpena aurkezteko borondatezko epea amaitu ondoren, baldin eta zerga-administrazioak aldez aurretik errekerimendurik egin ez badu. Hala, kendu egin da aitorpena aurkezteko borondatezko epea amaitu ondoren aldatu ezin diren aukera jakin batzuetarako muga. Aldaketa horrek gai hauek arautzen dituzten arauen zenbait artikuluri eragiten die: pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga, irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubidea eta Bizkaiko

En tercer lugar, destacan las modificaciones derivadas de la flexibilización del régimen de opciones que deben ejercitarse con la declaración o con la autoliquidación de la imposición personal, de tal manera que se permite la modificación de la opción ejercitada una vez finalizado el periodo voluntario de declaración y siempre que no se haya producido un requerimiento previo de la Administración tributaria, eliminando la limitación que opera para determinadas opciones que no pueden ser modificadas una vez finalizado el plazo voluntario de declaración. Esta modificación afecta a determinados artículos de las normas que regulan el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, el Impuesto sobre Sociedades, el régimen Fiscal de la Entidades sin fines lucrativos y de los Incentivos

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Lurralde Historikoko kooperatiben zerga-araubidea.

Fiscales al Mecenazgo y el Régimen Fiscal de Cooperativas del Territorio Histórico de Bizkaia.

Azkenik, higiezinak errentan emateko, sustatzeko eta salerosteko ekonomia-jardueraren kalifikazioa berrikusi da, sozietateen gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren ondorioetarako; ildo horretan, urtean izan beharreko batez besteko plantillaren baldintza jarduera horien eta merkatuaren errealitatera egokitu da, eta enplegatuen kopurua bostetik hirura murriztu da.

Por último, se revisa la calificación de actividad económica para el arrendamiento, la promoción y la compraventa de inmuebles, a efectos tanto del Impuesto sobre Sociedades, como del Impuesto sobre el Patrimonio, adecuando el requisito de plantilla media anual exigida a la realidad del ejercicio de dichas actividades, así como del mercado, de manera que se reducen de cinco a tres el número de personas empleadas.

Foru-arauaren artikuluen gainerako edukiari dagokionez, 1. artikuluak zenbait aldaketa dakartza Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean.

En cuanto al resto del contenido de los diferentes artículos de la Norma Foral, el artículo 1 introduce una serie de modificaciones en la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, que se mencionan a continuación.

Besteak beste, nabarmentzekoa da, zergadunei onura dakarkien aldaketa den aldetik, Bizkaiko tributu-errekarguen sisteman, zeinak automatismoa baitu ezaugarri, tresna berri bat sartzen dela, lehendik dauden beste batzuekin batera, hala nola borondatezko erregularizazioak, zergadunek akatsak egiteko duten eskubidea bermatzen duena, kasu honetan aitorpen- eta ordainketa-betebeharrak betetzeko epeak amaitzeko uneari dagokionez. Horretarako, zehazten da

De entre ellas, cabe destacar, por ser una modificación que beneficia a los y las contribuyentes, la incorporación en el sistema de recargos tributarios de Bizkaia, caracterizado por su automatismo, de un nuevo instrumento, junto con otros ya existentes como las regularizaciones voluntarias, para garantizar el derecho al error de los y las contribuyentes, en este caso en lo que se refiere al momento de finalización de los plazos de cumplimiento de las obligaciones de declaración y de pago,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

zenbateko aldian den akatsa onargarria, eta horrek zer ondorio dakartzan; funtsean, aplikatzekoak diren errekarguak gutxitzea.

definiendo el periodo durante el que el error es admisible y las consecuencias que esto conlleva que, básicamente, consisten en una atenuación de los recargos aplicables.

Horrela, errekarguen konfigurazio berri honek, zergadunak aitorpen- eta ordainketa-betebeharrak betetzeko duen ageriko borondatea kontuan hartuta, efektu ekonomikoak leundu nahi ditu, bai aitorpena epez kanpo aurkezteagatiko errekarguarenak, bai errekargu exekutiboarenak. Horregatik, aitorpena borondatezko epea amaitu eta hurrengo hiru egun baliodunen barruan aurkezten denean edo ordainketa efektiboa epe exekutiboko lehenengo hiru egun baliodunen barruan egiten denean, aitorpena epez kanpo aurkezteagatiko errekargua eta errekargu exekutiboa nabarmen murriztuko dira: ehuneko 5etik ehuneko 0,5era.

Así esta nueva configuración de los recargos, en atención a la voluntad manifiesta del o la contribuyente de cumplir con sus obligaciones de declaración y de pago, pretende mitigar los efectos económicos, tanto del recargo por declaración extemporánea como del recargo ejecutivo. Por ello, cuando la declaración sea presentada dentro de los tres días hábiles siguientes a la conclusión del plazo voluntario o cuando se realice el pago efectivo dentro de los tres primeros días hábiles del período ejecutivo, el recargo por declaración extemporánea y el recargo ejecutivo se reducen de manera notable pasando de un 5 por ciento a un 0,5 por ciento.

Zerga-erantzukizunaren eremuan xedatzen da ezen, erantzukizunak zehapenak ere hartzen dituen kasuetan, zordun nagusiak eskubidea izan badu 192.1 a) artikuluan ezarritako ehuneko 50eko murrizketarako, zor eratorria izango dela zordun nagusiari egokitu dakiokeen murrizketa aplikatu gabe bidezkoa den zenbatekoa, eta erantzuleari izapidea emango zaiola, hala badagokio adostasuna adieraz dezan erantzukizun-

En el ámbito de la responsabilidad tributaria, se dispone que cuando la responsabilidad alcance las sanciones en los supuestos en los que el deudor principal hubiera tenido derecho a la reducción del 50 por ciento establecida en el artículo 192.1 a) de la Norma Foral General Tributaria, la deuda derivada será el importe que proceda sin aplicar la reducción correspondiente al deudor principal y posteriormente se dará

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

adierazpenaren proposamenean.

trámite al responsable para que, en su caso, manifieste su conformidad en la propuesta de declaración de responsabilidad.

Berebat, teknikoki hobetzen da epe exekutiboaren barruko berehalako exekuzioaren konfigurazioa, eta ez dira sartzen ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko, alderdi batek eskatuta konpentsatzeko, ordainean emateko edo diru-bilketako prozedura eteteko eskaera bat ez onartzeko kasuak.

Asimismo, se mejora técnicamente la configuración de la ejecución inmediata dentro del periodo ejecutivo, no incorporando los supuestos de inadmisión de una solicitud de aplazamiento o fraccionamiento de pago, de compensación a instancia de parte, de dación en pago, o de suspensión del procedimiento recaudatorio.

Bestalde, pertsona juridikoei edo erakundeei informazioa emateko beste betebehar bat ezartzen zaiela aipatu behar da, zerga-administrazioari jakinarazi beharko baitiote zeintzuk diren benetako titularrak; halakotzat hartuko dira Kapitalak Zuritzea eta Terrorismoaren Finantzaketa Prebenitzeko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4.2 artikuluan definitutakoak.

En otro orden de cosas, cabe señalar la imposición de una nueva obligación de información para las personas jurídicas o entidades, que deberán comunicar a la Administración tributaria quiénes son sus titulares reales, teniendo tal consideración las y los definidos conforme al apartado 2 del artículo 4 de la Ley 10/2010, de 28 de abril, de prevención del blanqueo de capitales y de la financiación del terrorismo.

Zergen arlorako garrantzia duten isilpeko datuak hirugarren batzuei lagatzeko gaikuntza-kasuak arautzen dituen artikuluaz denaz bezainbatean, beste gaikuntza bat gehitzen da, lankidetzan aritzeko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzearekin lotutako kontratuak adjudikatzeko eta dirulaguntzak emateko prozeduren ardura duten erakundeekin, interes-gatazkak izateko arriskuaren analisi

En cuanto al artículo regulador de los supuestos habilitantes para la cesión de datos reservados con trascendencia tributaria a terceros, se incorpora una nueva habilitación para colaborar con las entidades responsables de los procedimientos de adjudicación de contratos y concesión de subvenciones vinculadas a la ejecución del Plan de recuperación, transformación y resiliencia, en relación con el análisis

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

sistematikoari dagokionez. Orobat, datuak lagatzeko kasuak hobetzen dira haien xedea honako hau denean: alde batetik, administrazio publikoekin lankidetzan aritzea, delitu fiskala eta iruzurra prebenitzeko eta haien aurka egiteko, laguntza publikoak lortzeari dagokionez, eta, bestetik, Aktiboak Berreskuratu eta Kudeatzeko Bulegoarekin lankidetzan aritzea, zigor-prozesu jakin batean enbargatuak edo konfiskatuak izan daitezkeen ondare-elementuak aurkitzeko.

sistemático de riesgo de conflicto de interés. Asimismo, se perfeccionan los supuestos de cesión de datos para colaborar, por una parte, con las Administraciones públicas para la prevención y lucha contra el delito fiscal y contra el fraude en la obtención de ayudas públicas y, por otra parte, con la Oficina de Recuperación y Gestión de Activos para la localización de elementos patrimoniales susceptibles de ser embargados o decomisados en un determinado proceso penal.

Zerga-prozeduren eremuan, zehaztapen bat egiten da zergapeko berberari buruzko prozedura berri bat hasten den kasurako, behin aurreko prozedura iraungi denean. Horrekin loturik, iraungitze-deklarazioa prozedura berriaren hasierarekin batera jakinarazteko aukera ezartzen da, kontuan hartu gabe prozedura organo berak edo beste batek izapidetzen duen.

En el ámbito de los procedimientos tributarios, se incluye una precisión en el caso de inicio de un nuevo procedimiento en relación con el mismo obligado tributario, una vez producida la caducidad del anterior. A este respecto, se establece la posibilidad de notificar la declaración de caducidad junto con el inicio del nuevo procedimiento con independencia de que este último se tramite por el mismo órgano o por otro distinto.

Azkenik, aipatzekoa da zerga-kudeaketaren eskumenekoak diren funtzioak zabaldu egiten direla, zerga-araubide bereziak aitortu eta egiaztatzeko funtzioa gehituz.

Finalmente, cabe mencionar la ampliación de las funciones que competen a la gestión tributaria, mediante la incorporación de la correspondiente al reconocimiento y comprobación de los regímenes tributarios especiales.

2. artikulua pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari eragiten dioten aldaketei

El artículo 2 se dedica a las modificaciones que afectan al Impuesto sobre la Renta de las

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

buruzkoa da.

Lehenengo eta behin, errenta salbuetsiei dagozkienak gehitu dira. Hala, zergadunek berek hitzartutako aseguru-kontratuen bidez kalte fisiko, psikiko edo moralengatik jasotzen dituzten zenbatekoak salbuestea ezartzen da, kalteon eragilea edozein dela ere, kaltea istripu baten ondoriozkoa izan (kasu hori dagoeneko estalita zegoen aurreko idazketan), zein gaixotasun arrunt baten ondoriozkoa.

Beste aldaketa aipagarri batzuk honako hauek dira: alde batetik, eguneratu egiten dira ordainketa bakarreko modalitatean jasotzen den langabezia-prestazioaren salbuespenean indarrean dagoen araudi substantibora egiten diren igorpenak; bestetik, Europar Batasunaren nekazaritza-politikatik datozen laguntzen salbuespena klimaren eta ingurumenaren aldeko erregimenei (ekoerregimenak) emandakoetara zabaltzen dira, eta, azkenik, muga egokitzen da eskola-kirolarekin lotutako eginkizunak betetzeagatik jasotako etekinen salbuespena aplikatzeko.

Salbuespen-kasu berri bat sartzen da: talidomidak eragindako pertsonei emandako laguntzak, bai eta kaltetu gisa jasotzen den beste edozein errenta edo hartukizun ere.

Personas Físicas.

En primer lugar, se incorporan las que se refieren a las rentas exentas. Así, en relación a las percepciones derivadas de contratos de seguro concertados por los propios contribuyentes por daños físicos, psíquicos o morales, se establece su exención independientemente de la causa del daño, ya derive este de un accidente, supuesto que quedaba ya cubierto con la anterior redacción, ya derive de una enfermedad común.

Otras modificaciones destacables son, por un lado, la actualización de las remisiones a la normativa sustantiva vigente en la exención de la prestación por desempleo percibida en la modalidad de pago único; por otro, la ampliación de la exención de las ayudas de la política agraria comunitaria a las otorgadas a los regímenes en favor del clima y del medio ambiente (eco-regímenes) y, finalmente, la adecuación del límite para la aplicación de la exención de los rendimientos percibidos por el desempeño de funciones relacionadas con el deporte escolar.

Como nuevo supuesto de exención, se incluyen las ayudas concedidas a personas afectadas por la talidomida, así como cualquier otra renta o percepción que se

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

reciba como afectado o afectada.

Azkenik, ondare-irabaziei buruz indarrean dagoen tratamenduarekin bat etorriz, salbuetsitzat jotzen dira, muga 240.000 euro dela, 65 urtetik gorako zergadunek bizi-aseguruen kontratuetatik kapital edo erreskate gisa jasotako biziraupen-prestazioetatik datozen etekinak, baldin eta etekinok beren aldeko biziarteko errenta bat eratzeko erabiltzen badira. Salbuespen horren muga 65 urtetik gorako zergadunek ondare-elementuak eskualdatzean agerian geratzen diren ondare-irabazi salbuetsiei dagokien zenbateko bereko mugarekin batera aplikatuko da, baldin eta jasotako zenbatekoa beren aldeko biziarteko errenta bat eratzeko erabiltzen bada.

Por último, en coherencia con el tratamiento vigente en relación con las ganancias patrimoniales, se declaran exentos, con el límite de 240.000 euros, los rendimientos derivados de las prestaciones por supervivencia en forma de capital o rescates derivados de contratos de seguros de vida percibidos por mayores de 65 años cuando se destinen a constituir una renta vitalicia a su favor. El límite de esta exención se aplicará de forma conjunta respecto del límite del mismo importe correspondiente a las ganancias patrimoniales exentas que se pongan de manifiesto con ocasión de la transmisión de elementos patrimoniales por contribuyentes mayores de 65 años cuando el importe percibido se destina, asimismo, a la constitución de una renta vitalicia a su favor.

Ekonomia-jardueren etekinei dagokienez, bi zehaztapen egiten dira aplikatzekoak diren integrazio murriztuko ehunekoei dagokienez, argitze aldera ehuneko horiek zer kasutan ez diren aplikatuko; besteak beste, honako kasu honetan: ekonomia-jarduerak gauzatzeak berak halako etekinak modu erregularrean edo ohikoan sortzen dituenean.

En lo que a los rendimientos de actividades económicas se refiere, se incluyen dos puntualizaciones en relación con los porcentajes de integración reducida aplicables, con el fin de aclarar los supuestos en los que dichos porcentajes no serán de aplicación, incluyendo, entre ellos, el caso en el que el propio ejercicio de la actividad económica dé lugar a ese tipo de rendimientos de forma regular o habitual.

Bestalde, hobetu egiten da desafektazio-

Por otra parte, se perfecciona la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

kasuetan ekonomia-jarduerari afektatuta dauden elementuen balioa zehazteko modua, elementuok zergadunaren ondare pertsonalean txertatzen baitira eta elementu horien balioa eguneratu egiten baita, desafektazio-ekitaldian, sozietateen gaineko zergan aplikatu beharreko diruaren balio-galera zuzentzeko koefizientearen bidez.

determinación del valor de los elementos patrimoniales afectos en los supuestos de desafectación, incorporándose dichos elementos en el patrimonio personal del o la contribuyente por un valor que se actualiza, en el ejercicio de desafectación, mediante el coeficiente de corrección monetaria correspondiente al Impuesto sobre Sociedades.

Beste bi lurralde historikoekin koordinatze aldera, zenbait aldaketa egiten dira enpresak pertsona fisikoei eskualdatzeari aplikatu beharreko tratamendu fiskalean. Ondorio horietarako, enpresa jakin batzuen edo familia-enpresaren partaidetzen dohaineko eskualdaketak egiten direnean ondare-irabazi edo -galerarik ez dagoela jotzeaz denaz bezainbatean, aplikazio-perimetroa laugarren graduko albo-ahaidetaraino zabaltzen da, eta, eskatutako betekizunei dagokienez, honako hauek nabarmentzen dira, besteak beste: dohaintza-emailearen adina hirurogei urtera jaisten da, eta eskuratzaileek enpresa bost urtez mantentzeko betebeharraren salbuespen gisa sartzen da, kausatzailearen heriotzaz gain, familia-enpresa konkurtso-prozedura baten ondorioz likidatzea.

En aras de la coordinación con los otros dos Territorios Históricos, se introducen ciertas modificaciones en el tratamiento fiscal aplicable a las transmisiones de empresas a personas físicas. A estos efectos, en relación con la consideración de inexistencia de ganancia o pérdida patrimonial establecida con ocasión de las transmisiones lucrativas de ciertas empresas o participaciones de la empresa familiar, se amplía el perímetro de aplicación hasta colaterales de cuarto grado y respecto a los requisitos exigidos, destacan, entre otros, la rebaja en la edad de la persona donante a sesenta años y la inclusión como salvedad a la obligación de mantenimiento de la empresa durante cinco años en las personas adquirentes, además del fallecimiento del causante, la liquidación de la empresa familiar por un procedimiento concursal.

Enpresak edo partaidetzak langileen alde eskualdatzen badira, horrelako eragiketak

En el supuesto de que las transmisiones de empresas o participaciones se realicen en

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

ahalbidetzeko eta sustatzeko, kendu egiten da eskaintza langile guztiei baldintza berdinetan egiteko betekizuna, baina ordainetan beste betekizun batzuk sartzen dira, enpresa langileei eskualdatzeak tratamendu hori merezi duela bermatzeko. Hala, eskuratzaileak betekizun hau bete beharko du: entitate partaidetuan edo taldeko beste entitate batean lan egindakoa izan behar du, eskuraketa egin aurreko 5 urteetatik 2tan gutxienez. Gainera, lanean jarraitu beharko du horietako batean, nahitaezko mantentze-epean (5 urte). Horrez gain, baterako partaidetza, gehienez ere, ehuneko 40 izango da eskuratzailearen familia-perimetroan, aipatutako epean, eta betekizun gisa eskatzen da eskualdatzaileak entitatean zuzendaritza-funtzioak betetzea eta zeregin horrengatik jasotzen duen ordainsaria lan pertsonalaren eta ekonomia-jardueren etekin guztien ehuneko 50 baino gehiago izatea. Benetan berritzailea da ex lege gertatzen den asimilazioa; izan ere, entitate batean akzioak edo partaidetzak entitate horretako edo taldeko entitateetako langileen alde eskualdatzeko betekizuna betetzat joko da eskuratzailea aldi berean honako betekizun hauek betetzen dituen entitate bat denean: eskualdatzen diren akzio edo partaidetzak dagozkion entitateko edo taldeko entitateetako langileen partaidetza baino ez izatea, eta langile horiek enpresan edo

favor de personas trabajadoras, a fin de posibilitar y fomentar este tipo de operaciones, se elimina el requisito de que la oferta se deba a realizar a todas las personas trabajadoras en condiciones de igualdad, si bien como contrapartida se introducen nuevos requisitos que aseguran que la transmisión de la empresa a las y los trabajadores es merecedora de este tratamiento. Así, se incluye el requisito para la persona adquirente de haber trabajado al menos 2 de los 5 años anteriores a la adquisición en la entidad participada u otra del grupo, así como de continuar trabajando en alguna de ellas durante el plazo obligatorio de mantenimiento de 5 años. Adicionalmente, se establece un porcentaje de participación máximo conjunto del 40 por ciento dentro del perímetro familiar del adquirente durante el mencionado plazo y se exige que la persona transmitente viniera ejerciendo funciones de dirección en la entidad que representaran más del 50 por ciento del total de los rendimientos del trabajo personal y de actividades económicas. Resulta realmente novedosa la asimilación que se produce ex lege al entenderse cumplido el requisito de que la transmisión de acciones o participaciones en una entidad se realice a favor de personas trabajadoras de la misma o de entidades del grupo cuando la adquirente es una entidad que, a su vez, esté participada

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

entitatean, edo taldeko entitateetan, lan egindakoak izatea, eskuraketa egin aurreko 5 urteetatik 2tan gutxienez.

exclusivamente por personas trabajadoras de la entidad cuyas acciones o participaciones se transmiten o de entidades del grupo, que cumplan el requisito de haber trabajado en la empresa o entidad, o en entidades del grupo, un mínimo de 2 de los 5 años anteriores a la adquisición.

Ondare-aldaketen esparruan, halaber, zehazten da kalte-ordain izaera duten berandutze-interesak jasotzearen ondoriozko ondare-irabaziak aurrezpenaren errenta osatzen duten kontzeptuen artean sartzen direla, gaur egun Bizkaiko zerga-administrazioa interpretatzen ari den bezala bere izaeraren arabera.

También en el ámbito de las alteraciones patrimoniales, se precisa que las ganancias patrimoniales derivadas de la percepción de intereses de demora de carácter indemnizatorio se incluyen entre los conceptos que constituyen renta del ahorro, tal y como está siendo interpretado en la actualidad por la Administración tributaria de Bizkaia atendiendo a su naturaleza.

Errenten integrazioari eta konpentsazioari dagokienez, konpentsazio-muga 100eko 10etik 100eko 25era igotzen da, zerga-oinarri orokorraren ondare-irabaziak eta -galerak zergaldi bakoitzean haien artean soil-soilik integratuz ateratzen den saldo negatiboa konpentsatzea errazteko.

En cuanto a la integración y compensación de rentas, se facilita la compensación del saldo negativo resultante de integrar, exclusivamente entre sí, en cada periodo impositivo, las ganancias y pérdidas patrimoniales de la base imponible general, incrementando el límite de compensación del 10 al 25 por 100.

Azkenik, zerga honetan dauden kenkariei dagokienez, ekonomia-jarduerak egiten dituzten zergadunek berariaz aplikatzen dituzten kenkariei buruzko 88. artikulua Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 64 bis eta 65 quinquies artikuluetan ezarritako arauetara egokitu

Finalmente, en relación a las deducciones en este impuesto, se acompasa el artículo 88, dedicado a las deducciones que aplican específicamente los y las contribuyentes que realizan actividades económicas, con la regulación que se establece en los artículos 64 bis y 65 quinquies de la Norma Foral de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek ekonomia-jarduerak egiten dituztenean, zergadun horiek aukera izan dezaten artikulu horietan araututako kenkariak aplikatzeko zenbait proiekturen finantzaketan parte hartzeagatik, baina zenbait berezitasun ezarrita. Hauek dira aipatutako proiektuak: ikerketa eta garapena edo berrikuntza teknologikoa, ikus-entzunezko obrak, arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunak eta liburuen argitalpena.

Impuesto sobre Sociedades, para abrir la posibilidad a que los y las contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que realicen actividades económicas puedan aplicar las deducciones reguladas en los citados artículos por la participación en la financiación de proyectos de investigación y desarrollo o innovación tecnológica, de obras audiovisuales, de espectáculos en vivo de artes escénicas y musicales y de edición de libros, con ciertas especialidades.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, zeinaren aldaketak foru-arau honen 4. artikuluan jasota baitaude, lehenik eta behin, aldatu egiten da ondare-sozietateen kontzeptua arautzen duen artikulua, eta kontzeptuaren edukia berregituratu egin da, benetako ondare-izaera dagoen kasuetan aplikatuko dela bermatzeko eta haren aplikazioan segurtasun juridikoa areagotzeko. Horri dagokionez, sozietate batek benetan egiten baditu ekonomia-jarduerak, zuzenean edo zeharka, baina unean uneko arrazoiak edo arrazoi iragankorrak direla-eta haren balantzean aktiboaren % 50 baino gehiago ekonomia-jarduerei lotuta ez dauden balio edo elementuek osatzen badute, sozietate hori ondare-sozietatetzat hartzeko arriskua dago; bada, hori gerta ez dadin, arau-mailako irtenbidea ematen zaio subholding-egituren

En cuanto al Impuesto sobre Sociedades, cuyas modificaciones se encuentran recogidas en el artículo 4 de esta Norma Foral, en primer lugar, se modifica el artículo que regula el concepto de sociedades patrimoniales, reconfigurado su conceptuación a fin de garantizar su aplicación a los supuestos de verdadera patrimonialidad, asi como de incrementar la seguridad jurídica en su aplicación. A este respecto, a fin de evitar la consideración de una sociedad como patrimonial cuando realmente realiza actividades económicas de manera directa o indirecta, aunque por motivos coyunturales o transitorios su balance presente un activo en el que más del 50 por 100 esté constituido por valores o elementos no afectos a actividades económicas, se da una solución normativa a la patrimonialidad sobrevenida en los

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

kasuan gerora sortutako ondare-izaerari.

Arazoa sortzen da holding-egitura bat subholding deritzen sozietateak sortuz garatzen denean. Sozietate mota horretan, dibidenduak entitate zergadunak zuzenean partaidetutako entitateek banatzen dituzte. Entitate partaidetuek ez dute enpresa-jarduerarik egiten, baina, aldi berean, beste entitate batzuetan ere parte hartzen dute, eta entitate horietatik datoz dibidenduak eta/edo partaidetzen eskualdaketetan lortutako gainbalioak. Entitate zergadunak zeharkako partaidetza du beste entitate horietan, eta partaidetza horrek betetzen ditu eskatutako betekizunak.

Horretarako, ezartzen da ez direla ekonomia-jarduerei lotuta ez dauden balore edo elementu gisa zenbatuko dibidendu eta gainbalioekin finantzatzen direnean, baldin eta dibidendu eta gainbalio horiek ekonomia-jardueren ondoriozko mozkinen parekotzat hartzen badira eta mozkin horiek eratortzen badira diru-sarreren 100eko 50 baino gehiagoren jatorria dibidendu eta gainbalio mota horretan duten entitateetako partaidetzetatik, betiere partaidetza horien eskuraketa-prezioak ekonomia-jarduerak gauzatzetik datozen mozkin banatu gabeen zenbatekoa gainditzen ez badu, kasuan kasuko urteko nahiz aurreko azken 3 urteetan lortutako mozkinen zenbatekoaren

supuestos de estructuras de subholdings.

El problema surge cuando una estructura holding se desarrolla procediendo a la creación de las llamadas sociedades subholding, en las que los dividendos se reparten por las entidades participadas directamente por la entidad contribuyente, que no realizan actividades empresariales pero que participan, a su vez, en otras entidades de las que provienen los dividendos y/o las plusvalías por la transmisión de las participaciones, y en las que la entidad contribuyente tiene una participación indirecta que sí cumple con los requisitos requeridos.

A este fin, se establece que no se computarán como valores ni como elementos no afectos a actividades económicas cuando se financien con los dividendos y plusvalías asimilados a beneficios procedentes de actividades económicas que deriven de participaciones en entidades cuyos ingresos procedan en más de un 50 por 100 de esa misma clase de dividendos y plusvalías, siempre que su precio de adquisición no supere el importe de los beneficios no distribuidos que provengan de la realización de actividades económicas, con el límite del importe de los beneficios obtenidos tanto en el propio año como en los últimos 3 años anteriores, plazo

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

muga ezarrita. Epe hori 10 urtekoa baino nabarmen txikiagoa da, zeina zuzeneko partaidetzen kasuan aplikatzen baita.

notoriamente inferior al de 10 años que es el que se aplica en el caso de participaciones directas.

Horrez gain, ekonomia-jarduerei lotutako elementuen beste kasu bat sartzen da; besteak beste, ekonomia-jardueretatik edo antzekoetatik datorren in itinere diruzaintza, zeinaren burutzea hura lortu eta hurrengo 3 urteetan enpresa-proiektuetan inbertitzearen mende baitago.

Adicionalmente, se introduce un nuevo supuesto de elementos que se califican como afectos a actividades económicas que incluye, entre otros, la tesorería "in itinere" proveniente de la realización de actividades económicas o asimilados, y cuyo perfeccionamiento está supeditado a que se invierta en proyectos empresariales dentro de los 3 años siguientes a su obtención.

Jarraian, malgutu egiten da partaidetza eskualdatzeko unean merkataritzako funts finantzarioari dagokionez egindako doikuntzen itzulketa-araubidea, zergapetze bikoitza saihesteko. Horrela, ez integratzeko aukera ahalbidetzen da, lortutako errenta positiboaren jatorria sozietateen gaineko zergan edo antzeko beste batean efektiboki tributatu duten eta bazkideari banatu zaizkion beste mozkin batzuk direnean, eta inola ere ezin izango da errenta negatiborik integratu entitate eskualdatzailean.

Seguidamente, se flexibiliza el régimen de reversión de los ajustes practicados con relación al fondo de comercio financiero en el momento de la transmisión de la participación a fin de evitar la doble imposición. De este modo, se posibilita la aplicación de la no integración en aquellos supuestos en los que la renta positiva obtenida tenga su origen en otros beneficios que hayan tributado de forma efectiva en el Impuesto sobre Sociedades u otro de naturaleza análoga, y hayan sido distribuidos al socio, sin que en ningún caso quepa la integración de una renta negativa en la entidad transmitente.

Era berean, hobetu egiten da zergapetze bikoitza ez aplikatzeko erregulazioa, eskualdatutako partaidetza bat-egite, zatiketa eta abarren araubide bereziaren

Asimismo, se incluye el perfeccionamiento de la regulación relativa a la eliminación de la doble imposición cuando la participación transmitida hubiera sido valorada conforme

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

arabera baloratu denean, eta arau horiek aplikatzeak berekin ekarri duenean errentarik ez integratzea sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarrian, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarenean edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenean. Ildo horretan, azpimarratzekoa da aplikatu egingo dela ekarpen-egileak zergapetze bikoitza saihestearren ez-integratzea aplikatzeko eskubiderik ez duenean; adibidez, establezimendu iraunkorrik gabe diharduten pertsona fisikoak edo zergadun ez-egoiliarrak izateagatik, zergaren foru-arauaren 33. eta 34. artikuluetan ezartzen den moduan. Kasu horretan, ez-integratzea lotuta egongo da dagozkien zenbatekoak enpresa-proiektu jakin batzuetan berrinbertitzearekin, baldin eta eragiketak 3 urteko epean egiten badira, edo, mozkinetako partaidetzen kasuan, bazkideei banatzen bazaizkie.

a las reglas del régimen especial de fusiones, escisiones, etc., y la aplicación de dichas reglas hubiera supuesto la no integración de rentas en la base imponible del Impuesto sobre Sociedades, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes o del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. En este sentido, cabe destacar su aplicación en aquellos supuestos en los que el aportante no tenga derecho a aplicar la no integración para evitar la doble imposición, por tratarse, por ejemplo, de personas físicas o de contribuyentes no residentes que actúen sin mediación de establecimiento permanente, que establecen los artículos 33 y 34 de la Norma Foral del Impuesto, quedando vinculada la no integración en este caso a que se produzca la reinversión de los importes correspondientes en determinados proyectos empresariales cuando las operaciones tengan lugar dentro del plazo de 3 años, o en su caso, cuando, tratándose de participaciones en beneficios, sean distribuidos a los socios.

Ondoren, aldatu egiten da diru-sarreren arloko beste zuzenketa batzuk arautzen dituen artikulua, eta ezartzen da, alde batetik, ez dela integratuko klimaren eta ingurumenaren aldeko erregimenei emandako (ekoerregimenak) laguntzetatik eratorritako errenta positiboa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan

A continuación, se modifica el artículo que regula otras correcciones en materia de ingresos, estableciéndose, por un lado, la no integración de la renta positiva derivada de ayudas a los regímenes en favor del clima y del medio ambiente (eco-regímenes), en coordinación con la modificación introducida en el Impuesto sobre la Renta de las

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

sartutako aldaketarekin bat etorriz.

Bestetik, foru-arau honen ondorioz finantzaketa-kontratuak liburuak argitaratzeko jardueran ere aplikatuko direnez, aukera ematen da liburuen argitalpena finantzatzeagatiko kenkariak berekin ekar dezan finantzatzailearentzat errenta positiboak integratzea, baldin eta finantzatzaileak zergari buruzko foru-arauaren 66 quinquies artikuluaren arabera aplikatzen duen kenkariak ordaindutako zenbatekoak gainditzen baditu.

Jarraian, eragiketa lotuei dagokienez, aldez aurreko balorazio-akordioek atzeraeragina izateko aukera sartzen da.

Bestalde, hobetu egiten da zergaren foru-arauaren 48.1 artikuluaren edukia, Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentarauan ezarritakoaren arabera. Gogora ekarri behar da ezen manu horretan aurreikusitako errenta-egozpenak, zergadunak gehiengoz partaidetutako entitateek lortutako errentei ez ezik, atzerriko establezimendu iraunkorren bidez lortutakoei ere eragiten diela, izan establezimendu horiek zergadunarenak berarenak zein zergaduna partaide nagusi den entitateenak.

Personas Físicas.

En otro orden de cosas, y consecuentemente con la apertura de los contratos de financiación a la actividad de edición de libros, que esta norma foral produce, se establece la posibilidad de que la deducción por financiación de la edición de libros dé lugar a la integración de rentas positivas para la persona financiadora cuando la deducción aplicada por esta, en virtud del artículo 66 quinquies de la Norma Foral de Impuesto, supere los importes desembolsados.

A continuación, y en relación con las operaciones vinculadas, se introduce la posibilidad de que los acuerdos previos de valoración tengan carácter retroactivo.

Por otro lado, se perfecciona el contenido del apartado 1 del artículo 48 de la Norma Foral del Impuesto, conforme a lo establecido en la Directiva (UE) 2016/1164 del Consejo de 12 de julio de 2016. Cabe recordar que la imputación de rentas prevista en dicho precepto afecta no solamente a las rentas obtenidas por entidades mayoritariamente participadas por el contribuyente, sino también a las obtenidas a través de establecimientos permanentes en el extranjero, tanto los del propio contribuyente como los de sus entidades mayoritariamente participadas.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Ildo horretan, eta Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren 7.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, zehazten da ezen, baldin eta gehiengoz partaidetutako entitateek egoitza duten jurisdikzioek beren establezimendu iraunkorrei egotz dakizkiekeen errentak salbuesten badituzte edo zergapetzen ez badituzte, entitate bereiziaren ikuspegia aplikatuko dela, halako moldez non errenta horien tributazio efektiboa bereiz zehaztuko baita entitate partaidetuaren jurisdikzioan eta haren establezimendu iraunkorrarenean, hurrenez hurren, jurisdikzio bakoitzean ordaindutako zergak eta lortutako errentak soilik kontuan hartuta. Aldiz, gehiengoz partaidetutako entitateen establezimendu iraunkorrei egotz dakizkiekeen errentak entitate horien zerga-oinarrian sartzen badira, ulertu behar da establezimendu iraunkor horiek lortutako errentak eta ordaindutako zergak gehiengoz partaidetutako entitate horiek lortutako errentak eta ordaindutako zergak direla, hurrenez hurren.

"f) 65 urtetik gorako zergadunek ondare-elementuak kostu bidez eskualdatzeagatik agerian geratzen diren ondare- irabaziak, baldin eta eskualdaketaren bidez lortutako zenbateko osoa haien aldeko biziarteko errenta aseguratu bat eratzeko erabiltzen badute, sei hilabeteko epean, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan. Gehienez ere 240.000 euro erabili ahal izango dituzte horrela biziarteko errentak eratzeko.

"f) Las ganancias patrimoniales que se pongan de manifiesto con ocasión de la transmisión de elementos patrimoniales por contribuyentes mayores de 65 años, siempre que el importe total obtenido por la transmisión se destine en el plazo de seis meses a constituir una renta vitalicia asegurada a su favor, en las condiciones que reglamentariamente se determinen. La cantidad máxima total que a tal efecto podrá destinarse a constituir rentas vitalicias será de 240.000 euros.

Zergadunak foru-arau honen 9. artikuluaren 37. apartatuan aurreikusitako salbuespena

En el caso de que el o la contribuyente aplique asimismo la exención prevista en el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

ere aplikatzen badu, apartatu honetako lehen paragrafoan aurreikusitako gehieneko kopurua 9.37 artikulu horretako lehen paragrafoan aurreikusitakoarekin batera aplikatuko da.

apartado 37 del artículo 9 de esta Norma Foral, la cantidad máxima prevista en el primer párrafo de este apartado se aplicará de manera conjunta con la prevista en el primer párrafo del mencionado artículo 9.37.

Berrinbertitutako zenbatekoa txikiagoa bada eskualdaketan jasotako zenbateko osoa baino, lortutako ondare-irabazian berrinbertitutako zenbatekoari dagokion zati proportzionala baino ez da utziko zergapetu gabe.

Cuando el importe reinvertido sea inferior al total de lo percibido en la transmisión, únicamente se excluirá de tributación la parte proporcional de la ganancia patrimonial obtenida que corresponda a la cantidad reinvertida.

Eratutako biziarteko errentaren ondoriozko eskubide ekonomikoak guztiz edo partez aurreratzen badira, kasu horretan lortzen den ondare-irabazia zergapetu egingo da.»

La anticipación, total o parcial, de los derechos económicos derivados de la renta vitalicia constituida, determinará el sometimiento a gravamen de la ganancia patrimonial correspondiente."

Hamabost. Aldatu egiten da 56.ter artikuluaren 3. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

Quince. Se modifica el apartado 3 del artículo 56.ter. que queda redactado en los siguientes términos:

«3. Foru-arau honen 105. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, aurreko apartatuan xedatutakoa zergaldi bakoitzean aplikatzeko, aitorpenaren aurkezpenarekin batera erabili beharreko aukera hautatu beharko da. Zergaldi baterako egindako aukera geroago aldatu ahal izango da, hain zuzen ere, zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren, baina Zerga Administrazioak aurretiazko

"3. A efectos de lo establecido en el artículo 105 de esta Norma Foral, la aplicación en cada período impositivo de lo dispuesto en el apartado anterior tendrá la consideración de opción a ejercitar con la presentación de la declaración. La opción ejercitada para un período impositivo podrá ser modificada con posterioridad una vez finalizado el plazo voluntario de declaración del Impuesto y siempre que no se haya producido un requerimiento previo de la Administración

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

errekerimendurik egin ez badu».

Hamasei. Aldatu egiten dira 57.2 artikuluaren k) letraren 1. eta 2. apartatuak, eta honela geratzen dira idatzita:

«1. Maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Konkurtso Legearen testu bateginaren bigarren liburuaren III. tituluan aipatutakoekin judizialki homologatzekoa modukoa den berregituratze-plan batean ezarritako kita bat eraginkorra izatea.

2. Zorduna konkurtso-egoeran egonik, kredituaren zenbatekoaren kita erabakitzen duen hitzarmena eraginkorra izatea, maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Konkurtso Legearen testu bateginaren lehen liburuaren VII. tituluaren VI. kapituluan xedatutakoaren arabera. Hala denean, kitaren zenbatekoaren arabera zenbatuko da galera.

Bestela, konkurtso-prozedura amaitzea kreditua ordaindu gabe, maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Konkurtso Legearen testu bateginaren 465. artikuluaren 1., 4. eta 7. zenbakietan aipatutako kausengatik konkurtsoa amaitzea erabakitzen denean izan ezik».

tributaria."

Dieciséis. Se modifican los apartados 1º y 2º de la letra k) del artículo 57.2, que quedan redactados en los siguientes términos:

"1º Que adquiera eficacia una quita establecida en un plan de reestructuración judicialmente homologable a los que se refiere el Título III del Libro Segundo del texto refundido de la Ley Concursal, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2020, de 5 de mayo.

2.º Que, encontrándose la persona deudora en situación de concurso, el convenio en el que se acuerde una quita en el importe del crédito adquiera eficacia conforme a lo dispuesto en el Capítulo VI del Título VII del Libro Primero del texto refundido de la Ley Concursal, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2020, de 5 de mayo, en cuyo caso la pérdida se computará por la cuantía de la quita.

En otro caso, que concluya el procedimiento concursal sin que se hubiera satisfecho el crédito salvo cuando se acuerde la conclusión del concurso por las causas a las que se refieren los números 1.º, 4.º y 7.º del artículo 465 del texto refundido de la Ley Concursal, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2020, de 5 de mayo."

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Hamazazpi. 60 artikuluko 2. Idatz zatiko azken paragrafoa aldatu da; paragrafo hori honelaxe geldituko da:

«Jendeari eskainitako preziotzat hau joko da: 2023ko apirilaren 27ko 4/2023 Legeak, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarenak, bere 47. artikuluan aipatzen duena, behin deskontu arruntak edo ohikoak kenduta. Deskontu arrunt edo ohikotzat hartuko dira enpresako langileekin pareka daitezkeen beste talde batzuei eskainitako deskontuak, bai eta izaera orokorrekoak diren eta gauzazko ordainketa egiteko unean indarrean dauden promozio-deskontuak ere, edota, bestela, %15 edo urteko 1.000 euro gainditzen ez dutenak. »

Diecisiete. Se modifica el último párrafo del apartado 2 del artículo 60, que queda redactada en los siguientes términos:

"Se considerará precio ofertado al público el previsto en el artículo 47 de la Ley 4/2023, de 27 de abril, del Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarias, deduciendo los descuentos ordinarios o comunes. Se considerarán ordinarios o comunes los descuentos que sean ofertados a otros colectivos de similares características a los y a las trabajadoras de la empresa, así como los descuentos promocionales que tengan carácter general y se encuentren en vigor en el momento de satisfacer la retribución en especie o que, en otro caso, no excedan del 15 por 100 ni de 1.000 euros anuales."

Hamazortzi. Aldatu egiten dira 63. artikuluaren c) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«c) Ondare-elementuen eskualdaketen ondorioz agerian geratzen diren ondare-irabaziak eta -galerak, bai eta kalte-ordain izaera duten berandutze-interesak jasotzearen ondoriozko ondare-irabaziak ere».

Dieciocho. Se modifica la letra c) del artículo 63, que queda redactada en los siguientes términos:

"c) Las ganancias y pérdidas patrimoniales que se pongan de manifiesto con ocasión de transmisiones de elementos patrimoniales, así como las ganancias patrimoniales derivadas de la percepción de intereses de demora de naturaleza indemnizatoria."

Hemeretzi. Aldatu egiten da 65. artikuluaren c) letra, eta honela geratzen da idatzita:

Diecinueve. Se modifica la letra c) del artículo 65, que queda redactada en los siguientes términos:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

«c) Ondare-irabaziak eta -galerak soil-soilik haien artean eta zergaldi bakoitzean integratuz eta konpentsatuz ateratzen den saldo positiboa, hurrengo artikuluan jasotakoak alde batera utzita.

Artikulu honen c) letra honetan aipatzen den integrazio eta konpentsazioaren emaitza saldo negatiboa bada, haren zenbatekoa artikulu honen a) eta b) letretan jasotako errentak batuta ateratzen den saldo positiboarekin konpentsatuko da, hau da, zergaldi berean lortutako saldo positiboarekin, muga izanik saldo horren % 25. Konpentsazio hori egin eta saldo negatiboa ateratzen bada, zenbateko hori hurrengo lau urteetan zehar konpentsatuko da, artikulu honen aurreko letretan ezarri den hurrenkera berari jarraituz. Ondorengo ekitaldi bakoitzean onar daitekeen gehieneko kopuruan egin beharko da konpentsazioa, betiere lau urteko epearen barruan, hurrengo ekitaldietan ondare-galera moduan jasoz».

Hogei. Aldatu egiten da 82. artikuluaren 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Mendekotasuna edo desgaitasuna duen zergadun bakoitzagatik kenkari bat aplikatuko da, eta, haren zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko da mendetasun-edo desgaitasun-gradua zein den (gradu hori

"c) El saldo positivo resultante de integrar y compensar, exclusivamente entre sí, en cada período impositivo, las ganancias y pérdidas patrimoniales, excluidas las previstas en el artículo siguiente.

Si el resultado de la integración y compensación a que se refiere esta letra c) arrojase saldo negativo, su importe se compensará con el saldo positivo resultante de la suma de las rentas previstas en las letras a) y b) de este artículo, obtenido en el mismo período impositivo, con el límite del 25 por 100 de dicho saldo positivo. Si tras dicha compensación quedase saldo negativo, su importe se compensará, en los cuatro años siguientes, en el mismo orden establecido en las letras anteriores de este artículo. La compensación deberá efectuarse en la cuantía máxima que permita cada uno de los ejercicios siguientes y sin que pueda practicarse fuera del plazo de cuatro años, mediante la acumulación a pérdidas patrimoniales de ejercicios posteriores."

Veinte. Se modifica el apartado 1 del artículo 82, que queda redactado en los siguientes términos:

"1. Por cada contribuyente que sea persona con dependencia o discapacidad, se aplicará la deducción que, en función del grado de dependencia o discapacidad acreditado que conforme a lo que reglamentariamente se

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

erregelamendu bidez ezarritako eran egiaztatu beharko da). Hona hemen kenkari horri dagokion taula:

Mendekotasun- edo desgaitasun-gradua	Kenkaria (euroak)
Desgaitasuna % 33 edo handiagoa eta % 65 baino txikiagoa	888
Desgaitasuna % 65 edo handiagoa. Mendekotasun moderatua (I. gradua)	1.268
Mendekotasun larria (II. gradua)	1.521
Mendekotasun oso larria (III. gradua)	1.897

Aurreko paragrafoan aipatzen den mendekotasun- eta desgaitasun-gradua 2022ko urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuan eta 2011ko otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera neurtuko dira. Haien bidez, hurrenez hurren, desgaitasun-gradua aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen da eta Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak mendekotasun-egoera baloratzeko determine, se señala a continuación:

Grado de dependencia o discapacidad	Deducción (euros)
Igual o superior al 33% e inferior al 65% de discapacidad	888
Igual o superior al 65% de discapacidad. Dependencia moderada (Grado I)	1.268
Dependencia severa (Grado II)	1.521
Gran dependencia (Grado III)	1.897

El grado de discapacidad y de dependencia a que se refiere el párrafo anterior se medirán conforme a lo establecido en el Real Decreto 888/2022, de 18 de octubre, por el que se establece el procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de discapacidad, y en el Real Decreto 174/2011, de 11 de febrero, por el que se aprueba el baremo de valoración de la situación de dependencia establecido por la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

ezartzen duen baremoa onartzen da.

Kenkari bera aplikatuko da ezkontideak edo izatezko bikotekideak desgaitasuna edo mendekotasuna badu eta apartatu honetan ezartzen diren betekizunak betetzen baditu».

dependencia.

La misma deducción se aplicará por el cónyuge o pareja de hecho que sea persona con discapacidad o dependiente y que cumpla los requisitos establecidos en este apartado."

Hogeita bat. Aldatu egiten da 82. artikuluaren 3. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

Veintiuno. Se modifica el apartado 3 del artículo 82, que queda redactado en los siguientes términos:

«3. Aurreko apartatuan adierazitako senitartekoen edo haiekin parekatutakoen zerrendan ageri ez den 65 urteko edo hortik gorako pertsonaren bat zergadunarekin bizi bada eta haren urteko sarrerak, salbuetsiak kontuan hartu gabe, lanbide arteko gutxieneko soldata halako bi baino gutxiago badira, aurreko 1. apartatuan ezarritako kenkariak aplikatuko dira halako pertsona bakoitzeko, mendekotasun- edo desgaitasun-gradua kontuan hartuta».

"3. Por cada persona de edad igual o superior a 65 años que no estando incluida en la relación de familiares o asimilados contemplados en el apartado anterior, tenga ingresos inferiores al doble del salario mínimo interprofesional, sin incluir las exentas, y conviva con el contribuyente, se aplicarán las deducciones establecidas en el apartado 1 anterior, atendiendo al grado de dependencia o de discapacidad."

Hogeita bi. Aldatu egiten da 88. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

Veintidos. Se modifica el artículo 88, que queda redactado en los siguientes términos:

«88. artikulua. *Kenkaria inbertsioengatik eta beste jarduera batzuengatik.*

"Artículo 88. *Deducción por inversiones y por otras actividades.*

1. Zerga honen zergadunek aktibo ez-korronte berrietan inbertitzeko eta jarduera jakin batzuk egiteko Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren V. tituluaren III. kapituluan ezarritako kenkariak aplikatu

1.Los y las contribuyentes por este Impuesto podrán aplicar las deducciones para incentivar las inversiones en activos no corrientes nuevos y la realización de determinadas actividades previstas en el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

ahal izango dituzte, ehuneko eta muga berdinekin.

Capítulo III del Título V de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, con igualdad de porcentajes y límites de deducción.

Hala ere, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 64 bis eta 66 quinquies artikuluetan araututako kenkariak aplikatuz gero, muga % 25 izango da. Muga hori aplikatuko da, halaber, ekonomia-intereseko elkartzeetako bazkideei foru-arau horren 66 quater artikuluan ezarritako kenkariak egozten zaizkienean, baldin eta elkartze horiei egindako ekarpenak ezaugarri berezidun ondare-tresnatzat kalifikatu behar badira kontabilitate-irizpideen arabera.

No obstante, en el caso de aplicación de las deducciones reguladas en los artículos 64 bis y 66 quinquies de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades el límite será del 25 por ciento. Este límite será asimismo de aplicación cuando se imputen a los y las socias de agrupaciones de interés económico las deducciones previstas en el artículo 66 quater de esta Norma Foral, siempre que las aportaciones realizadas a dichas agrupaciones deban ser calificadas como instrumentos de patrimonio con características especiales conforme a los criterios contables.

2. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan artikulu honetako 1. apartatuan aipatutako kenkariak aplikatzeko ezartzen diren mugak zerga honen kuota osoari aplikatuko zaizkio, betiere kuota hori bat datorrenean ekonomia-jardueren etekinez osatzen den zerga-oinarri orokorraren zatiarekin.

2. Los límites establecidos para la aplicación de las deducciones a las que se refiere el apartado 1 de este artículo se aplicarán sobre la cuota íntegra de este Impuesto que se corresponda con la parte de base imponible general integrada por los rendimientos de las actividades económicas.

3. Kuota osoa txikiegia izateagatik aplikatzen ez diren kenkariak ondoz ondoko hurrengo hogeita hamar urteetan amaitzen diren zergaldietako autolikidazioetan aplikatu ahal izango dira, baina muga berak errespetatuz.

3. Las deducciones no aplicadas por insuficiencia de cuota íntegra podrán aplicarse respetando iguales límites en las declaraciones de los períodos impositivos que concluyan en los treinta años inmediatos

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

y sucesivos.

4. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 64 bis eta 66 quinquies artikuluetan araututako kenkariak aplikatzeko, beharrezkoa izango da artikulu horietan aipatzen den finantzaketa-kontratua formalizatzea erregelamenduz ezarritako epeetan eta, betiere, finantzatzaileak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpena egiteko duen borondatezko aldia hasi aurretik.

4. Para la aplicación de las deducciones reguladas en los artículos 64 bis y 66 quinquies de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, será necesario que se formalice el contrato de financiación al que se refieren los mencionados artículos en los plazos establecidos reglamentariamente y, en todo caso, antes de que comience el período voluntario de declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del financiador.

Epe berean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 64 bis artikuluaren 7. apartatua eta 66 quinquies artikuluaren 10. apartatuan aipatzen diren komunikazioak aurkeztu beharko dira.

En este mismo plazo deberán presentarse las comunicaciones a las que se refieren el número 7 del artículo 64 bis y el número 10 del artículo 66 quinquies del Impuesto sobre Sociedades.

5. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 117.3 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, artikulu honetan jasotzen diren kenkariak aplikatu ahal izateko, zergadunak berariaz adierazi behar du kenkariok aplikatuko dituela; kenkariak aplikatu nahi dituen ekitaldiko aitorpena aurkezterakoan egin behar du adierazpen hori. Zergaldi baterako egindako aukera geroago aldatu ahal izango da, hain zuzen ere, zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren, baina Zerga Administrazioak aurretiazko

5. A efectos de lo previsto en el apartado 3 del artículo 117 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, para poder practicar las deducciones contempladas en este artículo se precisará que el contribuyente opte expresamente por su aplicación al presentar la declaración del ejercicio al que correspondan. La opción ejercitada para un período impositivo podrá ser modificada con posterioridad una vez finalizado el plazo voluntario de declaración del Impuesto y siempre que no se haya producido un requerimiento previo de la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

errekerimendurik egin ez badu».

Hogeita hiru. Aldatu egiten da 89. artikuluaren 4. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«4. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 117.3 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, artikulu honetan jasotzen diren kenkariak aplikatu ahal izateko, zergadunak berariaz adierazi behar du kenkariok aplikatuko dituela; kenkariak aplikatu nahi dituen ekitaldiko aitorpena aurkezterakoan egin behar du adierazpen hori. Zergaldi baterako egindako aukera geroago aldatu ahal izango da, hain zuzen ere, zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren, baina Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendurik egin ez badu».

Hogeita lau. Aldatu egiten da 90. artikuluaren 9. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«9. Artikulu honetan araututako kenkaria egitea aitorpena aurkeztearekin batera gauzatu beharreko aukera bat da, foru-arau honen 105. artikuluan xedatutakoaren ildotik. Zergaldi baterako egindako aukera geroago aldatu ahal izango da, hain zuzen ere, zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren, baina Zerga Administrazioak aurretiazko

Administración tributaria."

Veintitrés. Se modifica el apartado 4 del artículo 89, que queda redactado en los siguientes términos:

"4. A efectos de lo previsto en el apartado 3 del artículo 117 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, para poder practicar las deducciones contempladas en este artículo se precisará que el o la contribuyente opte expresamente por su aplicación al presentar la declaración del ejercicio al que correspondan. La opción ejercitada para un período impositivo podrá ser modificada con posterioridad una vez finalizado el plazo voluntario de declaración del Impuesto y siempre que no se haya producido un requerimiento previo de la Administración tributaria."

Veinticuatro. Se modifica el apartado 9 del artículo 90, que queda redactado en los siguientes términos:

"9. La práctica de la deducción regulada en este artículo constituye una opción que debe ser ejercitada con la presentación de la declaración, en el sentido de lo dispuesto en el artículo 105 de esta Norma Foral. La opción ejercitada para un período impositivo podrá ser modificada con posterioridad una vez finalizado el plazo voluntario de declaración del Impuesto y siempre que no

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

errekerimendurik egin ez badu».

Hogeita bost. Gehitu egiten zaio 5. apartatu 90 bis artikuluari, eta honela geratzen da idatzita:

«5. Artikulu honetan araututako kenkaria egitea aitorpena aurkeztearekin batera gauzatu beharreko aukera bat da, foru-arau honen 105. artikuluan xedatutakoaren ildotik. Zergaldi baterako egindako aukera geroago aldatu ahal izango da, hain zuzen ere, zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren, baina Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendurik egin ez badu».

Hogeita sei. Aldatu egiten da 91. artikuluaren 3. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«3. Artikulu honetan xedatutakoa aplikatzea aukera bat da, autolikidazioa aurkeztean erabili behar dena, foru-arau honen 105. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako. Zergaldi baterako egindako aukera geroago aldatu ahal izango da, hain zuzen ere, zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren, baina Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendurik egin ez badu».

se haya producido un requerimiento previo de la Administración tributaria."

Veinticinco. Se añade un apartado 5 en el artículo 90 bis, que queda redactado en los siguientes términos:

"5. La práctica de la deducción regulada en este artículo constituye una opción que debe ser ejercitada con la presentación de la declaración, en el sentido de lo dispuesto en el artículo 105 de esta Norma Foral. La opción ejercitada para un período impositivo podrá ser modificada con posterioridad una vez finalizado el plazo voluntario de declaración del Impuesto y siempre que no se haya producido un requerimiento previo de la Administración tributaria."

Veintiseis. Se modifica el apartado 3 del artículo 91, que queda redactado en los siguientes términos:

"3. La aplicación de lo dispuesto en este artículo tiene la consideración de opción que debe ejercitarse con la presentación de la declaración a los efectos de lo dispuesto en el artículo 105 de esta Norma Foral. La opción ejercitada para un período impositivo podrá ser modificada con posterioridad una vez finalizado el plazo voluntario de declaración del Impuesto y siempre que no se haya producido un requerimiento previo

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

de la Administración tributaria."

Hogeita zazpi. Aldatu egiten dira 102.artikuluaren 1. eta 7. Apartatuak, eta honela geratzen dira idatzita:

Veintisiete. Se modifican los apartados 1 y 7 del artículo 102, que quedan redactados en los siguientes términos:

"1. Zergadunek zerga honi dagokion aitorpena, erregelamenduz ezartzen diren mugak eta baldintzak beteta aurkeztu eta sinatu beharko dute.

"1. Las y los contribuyentes estarán obligados a presentar y suscribir declaración por este Impuesto, con los límites y condiciones que reglamentariamente se establezcan.

Zergaren aitorpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuko dira, artikulu honen 7. atalean adierazitakoarekin bat etorriz. "

La presentación de las declaraciones del Impuesto se efectuará a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia, de conformidad con lo indicado en el apartado 7 de este artículo."

7. Zerga honi dagozkion aitorpenak aurkezteko, baita zuzenketak edo administrazio-bideko errekurtsoak aurkezteko ere, bitarte informatiko, elektroniko edo telematikoak erabili beharko dira eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira.

"7. Las declaraciones por este Impuesto, así como las rectificaciones o los recursos en vía administrativa que procedan, deberán efectuarse utilizando medios informáticos, electrónicos o telemáticos a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

Erregelamendu bidez garatuko dira adierazpen, zuzenketa eta errekurtso horiek Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egiteko prozedurak, bai eta Zerga Administrazioak zergaren aitorpenak aurkeztean laguntza pertsonala eskainiko duen kasuak ere ".

Reglamentariamente se desarrollarán los procedimientos para efectuar dichas declaraciones, rectificaciones y recursos a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia, así como los supuestos en los que la Administración tributaria ofrecerá asistencia personal en la presentación de las declaraciones del

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Impuesto".

Hogeita zortzi. Aldatu egiten da lehenengo xedapen gehigarria, eta honela geratzen da idatzita:

Veintiocho. Se modifica la disposición adicional primera, que queda redactada en los siguientes términos:

«Lehenengoa. *Izatezko bikoteak*.

"Primera. *Parejas de hecho*.

Foru-arau honen ondorioetarako, izatezko bikoteak aipatzen direnean ulertuko da Izatezko bikoteak arautzeko Eusko Legebiltzarraren 2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako bikoteak direla.

A los efectos de esta Norma Foral, las referencias que se efectúan a las parejas de hecho se entenderán realizadas a las constituidas conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las parejas de hecho.

Berebat, ulertuko da aipamen horiek honelako izatezko bikoteak ere hartzen dituztela aintzat: beste autonomia-erkidego batzuetako, Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako, Europako Esparru Ekonomikoko edo beste herrialde batzuetako erregistro publikoetan modu berean eratu eta inskribatutakoak.

Asimismo, se entenderá que dichas referencias comprenden también a las parejas de hecho constituidas e inscritas de forma análoga en registros públicos tanto de otras comunidades autónomas como de otros Estados miembros de la Unión Europea, del Espacio Económico Europeo o de países terceros.

Era berean, ezkontza bidezko ahaidetasun-harremanei egindako aipamenetan, izatezko bikotea eratzearen ondoriozko harremanak ere sartuko dira».

Del mismo modo, las referencias realizadas a las relaciones de parentesco por afinidad incluirán aquellas relaciones que deriven de la constitución de la pareja de hecho."

Hogeita bederatzi. Gehitu egiten da hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria, eta hau izango da haren edukia:

Veintinueve. Se añade una nueva disposición adicional trigésima séptima, con el siguiente contenido:

«Hogeita hamazazpigarrena. *Banakako pentsioen produktu paneuroparrak*.

"Trigésima séptima. *Productos paneuropeos de pensiones individuales*.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Banakako pentsioen produktu paneuropar bati buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1238 (EB) Erregelamenduan araututako banakako pentsioen produktu paneuroparrei borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei eta pentsio-planei dagokien tratamendua aplikatuko zaie zerga honetan.

A los productos paneuropeos de pensiones individuales regulados en el Reglamento (UE) 2019/1238 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 20 de junio de 2019, relativo a un producto paneuropeo de pensiones individuales, les será de aplicación en este impuesto el tratamiento que corresponda a las entidades de previsión social voluntaria y los planes de pensiones.

Zehazki:

En particular:

a) Pertsona aurreztaileek banakako pentsioen produktu paneuroparrei egindako ekarpenek zerga-oinarri orokorra murriztu ahal izango dute, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei, pentsio-planei eta gizarte-aurreikuspeneko beste sistema batzuei egindako ekarpenetarako foru-arau honen 70. artikuluan ezarritako modu berean, eta artikulu horren 3. apartatuan ezarritako gehieneko mugan eta foru-arau honen 71. artikuluan gizarte-aurreikuspeneko sistemetarako ezarritako gehieneko muga bateratuan sartuko dira.

a) Las aportaciones de las personas ahorradoras a los productos paneuropeos de pensiones individuales podrán reducir la base imponible general en los mismos términos que las realizadas a las entidades de previsión social voluntaria, los planes de pensiones y otros sistemas de previsión social previstos en el artículo 70 de esta norma foral, y se incluirán en el límite máximo previsto en el apartado 3 de dicho artículo y en el límite máximo conjunto previsto en el artículo 71 de esta Norma Foral para sistemas de previsión social.

b) Banakako pentsioen produktu paneuroparren onuradunek jasotzen dituzten prestazioak lan-etekintzat hartuko dira beti, eta ez dira egongo oinordetza eta dohaintzen gaineko zergari lotuta.

b) Las prestaciones percibidas por las personas beneficiarias de los productos paneuropeos de pensiones individuales tendrán en todo caso la consideración de rendimientos del trabajo y no estarán sujetas al Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones.

c) Zergadunak osorik edo zati batean

c) Si la o el contribuyente dispusiera de los

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

erabiltzen baditu banakako pentsioen produktu paneuroparretatik datozen eskubide ekonomikoak pentsio-plan edo -funtsen araudian jasota ez dauden kasuetan, berriro jarri beharko ditu zerga-oinarri orokorrean behar ez bezala egin dituen murrizketak. Horretarako, aitorpen osagarriak egin beharko ditu, eta berandutze-interesak ere gehitu beharko ditu. Ekarpen erregularizatuen zenbatekoa gaindituta jaso diren kopuruek lan-etekin gisa tributatuko dute, jasotzen diren zergaldian».

derechos de contenido económico derivados de las aportaciones a productos paneuropeos de pensiones individuales, total o parcialmente, en supuestos distintos de los previstos en la normativa de planes y fondos de pensiones, deberá reponer las reducciones en la base imponible indebidamente practicadas, mediante las oportunas declaraciones complementarias, con inclusión de los intereses de demora. Las cantidades percibidas que excedan del importe de las aportaciones regularizadas tributarán como rendimiento del trabajo en el período impositivo en que se perciban."

Hogeita hamar. Gehitu egiten da hogeita hamazortzigarren xedapen gehigarria, eta hau izango da haren edukia:

Treinta. Se añade una nueva disposición adicional trigésima octava, con el siguiente contenido:

«Hogeita hamazortzigarrena. *Beste araudi baten pean dauden ekonomia-intereseko elkartzeetako bazkideak.*

"Trigésima octava. *Socios de Agrupaciones de Interés Económico sometidas a otra normativa.*

Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-araudiaren mende ez dauden ekonomia-intereseko elkartzeetako bazkideen kasuan, kontabilitate-irizpideen arabera ezaugarri berezidun ondare-tresnatzat kalifikatu behar diren ekarpenak egiten dituztenean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 66 quater artikuluan araututako kenkariek muga hau aplikatuko dute: ekonomia-jardueren etekinez osatzen den zerga-oinarri orokorraren zatiarekin bat

En los casos de socios de Agrupaciones de Interés Económico que no estén sometidas a la normativa foral del Territorio Histórico de Bizkaia cuyas aportaciones deban ser calificadas como instrumentos de patrimonio con características especiales conforme a los criterios contables, las deducciones reguladas en el artículo 66 quater de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades aplicarán el límite del 25 por 100 de la cuota íntegra de este Impuesto que se corresponda

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

datorren zerga horren kuota osoaren % 25. »

con la parte de base imponible general integrada por los rendimientos de las actividades económicas."

Hogeita hamaika. Aldatu egiten da hamahirugarren xedapen iragankorraren lehen paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

Treinta y uno. Se modifica el primer párrafo de la disposición transitoria decimotercera, que queda redactado en los siguientes términos:

«Desgaitasuna duten pertsonei laguntzeko aldez aurretik ezarritako neurriak ekainaren 2ko 8/2021 Legearen bosgarren xedapen iragankorrean eta hura garatzen duten xedapen guztietan ezarritakoaren arabera berrikusten diren bitartean (lege horren bidez, legeria zibila eta prozesala erreformatzen dira desgaitasuna duten pertsonei gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko), ordezkaritza-ahalmena duten eta kuradoretzaren menpe dauden pertsonak eta foru-arau honen 70., 72., 79., 82. eta 85. artikuluetan eta hamaikagarren xedapen gehigarrian aipaturiko ordezkaritza-ahalmen horiek erabiltzen dituzten pertsonak aipatzen direnean, hauek direla ulertu behar da, hurrenez hurren: Kode Zibilean ezarritako arrazoien ondorioz judizialki deklaratutako ezgaitasuna duten pertsonak eta aurrekoei dagokienez tutore-kargua betetzen dutenak».

"Durante el periodo que transcurra hasta que las medidas de apoyo a las personas con discapacidad previamente establecidas sean objeto de revisión en aplicación de lo dispuesto en la disposición transitoria quinta de la Ley 8/2021 de 2 de junio, por la que se reforma la legislación civil y procesal para el apoyo a las personas con discapacidad en el ejercicio de su capacidad jurídica, y de las disposiciones que la desarrollen, las referencias realizadas a las personas sujetas a curatela con facultades de representación y a quienes ejerzan dichas facultades de representación en los artículos 70, 72, 79, 82, 85 y en la disposición adicional decimoprimera, todos ellos de esta Norma Foral, se entenderán realizadas, asimismo y respectivamente, a las personas que tengan una incapacidad declarada judicialmente en virtud de las causas establecidas en el Código Civil, y a quienes ejerzan el cargo de tutor respecto de las anteriores."

Hogeita hamabi. Gehitu egiten zaio 4. apartatua hogeita bederatzigarren xedapen

Treinta y dos. Se añade un apartado 4 en la disposición transitoria vigesimonovena, con

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

iragankorrari, eta honela geratzen dira idatzita:

«4. Foru-arau honen 88 artikuluan ezarritako mugak xedapen iragankor honetan araututako kenkaria aplikatu ondoren aplikatuko zaizkie manu horietan aipatzen diren kuotei».

Hogeita hamahiru. Gehitu egiten da hogeita hamahirugarren xedapen iragankorra, eta hau izango da haren edukia:

«Hogeita hamahirugarrena. *Mugikortasun mugatuko egoera egiaztatzeko araubide iragankorra, lan-etekinaren hobari areagotua zehazteko.*

Foru-arau honen 23.3 artikuluaren b) letran ezarritako hobaria aplikatzeari dagokionez, desgaitasunaren beste aitorpen, deklarazio edo kalifikazio bat egiten ez den bitartean, letra horretan aipatzen den mugikortasun mugatuko egoera egiaztatutzat joko da, halaber, Desgaitasun-gradua aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedurari buruzko 1999ko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera emandako ziurtagiriaren bidez, b) letra horrek 2023ko abenduaren 31n indarrean zuen edukian xedatutakoa betez».

el siguiente contenido:

"4. Los límites establecidos en el artículo 88 de esta Norma Foral se aplicará sobre la cuota a la que se refiere dicho precepto una vez aplicada la deducción regulada en esta disposición transitoria."

Treinta y tres. Se añade una nueva disposición transitoria trigésima tercera, con el siguiente contenido:

"Trigésima tercera. *Régimen transitorio de acreditación del estado carencial de movilidad reducida para la determinación de la bonificación incrementada del rendimiento del trabajo.*

A los efectos de la aplicación de la bonificación prevista en la letra b) del artículo 23.3 de la presente Norma Foral, en tanto en cuanto no se produzca un nuevo reconocimiento, declaración o calificación de la discapacidad, el estado carencial de movilidad reducida al que se hace referencia en dicha letra se entenderá acreditado asimismo, mediante certificación emitida con arreglo a lo previsto en el Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre, de procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de discapacidad, en cumplimiento de lo previsto en dicha letra b) en su redacción vigente a 31

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

de diciembre de 2023.”

Hogeita hamalau. Gehitu egiten da hogeita hamalaugarren xedapen iragankorra, eta hau izango da haren edukia:

Treinta y cuatro. Se añade una nueva disposición transitoria trigésima cuarta, con el siguiente contenido:

«Hogeita hamalaugarrena. *Desgaitasunagatiko edo mendekotasunagatiko kenkaria aplikatzeko araubide iragankorra*.

“Trigésima cuarta. *Régimen transitorio de la aplicación de la deducción* por discapacidad o dependencia.

Foru-arau honen 82. artikuluan ezarritako desgaitasunagatiko edo mendekotasunagatiko kenkaria aplikatzeko, eta desgaitasunaren beste aitorpen, deklarazio edo kalifikazio bat egiten ez den bitartean, desgaitasun-egoera Desgaitasun-gradua aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedurari buruzko 1999ko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera aitortu zaien zergadunek 82. artikulu horretan desgaitasun-graduari eta inoren laguntza behar izateari dagokionez ezarritako betekizunen arabera aplikatuko dute kenkaria, artikulu horrek 2023ko abenduaren 31n indarrean zuen edukian xedatutakoa kontuan hartuta».

A los efectos de la aplicación de la deducción por discapacidad o dependencia prevista en el artículo 82 de la presente Norma Foral, y en tanto en cuanto no se produzca un nuevo reconocimiento, declaración o calificación de la discapacidad, las y los contribuyentes cuya situación de discapacidad haya sido reconocida con arreglo a lo previsto en el Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre, de procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de discapacidad, aplicarán la deducción con arreglo a las exigencias de grado de discapacidad y de necesidad de ayuda de tercera persona previstas en el citado artículo 82 en su redacción vigente a 31 de diciembre de 2023”.

Hogeita hamabost. Gehitu egiten da hogeita hamabosgarren xedapen iragankorra, eta hau izango da haren edukia:

Treinta y cinco. Se añade una nueva disposición transitoria trigésima quinta, con el siguiente contenido:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

«Hogeita hamabosgarrena. *Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 66 quater artikuluan araututako kenkariak aplikatzeko modua, foru-arau horren VI. tituluaren III. kapituluan xedatutakoaren ondorioz aplikatzen direnean, eta 2025eko urtarrilaren 1a baino lehen eratutako ekonomia-intereseko elkartzeei egindako ekarpenak ezaugarri berezidun ondare-tresnatzat kalifikatu behar direnean kontabilitate-irizpideen arabera.*

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 66 quater artikuluan araututako kenkariak aplikatzen badituzte foru-arau horren VI. tituluaren III. kapituluan xedatutakoaren ondorioz, eta 2025eko urtarrilaren 1a baino lehen eratutako ekonomia-intereseko elkartzeei egindako ekarpenak ezaugarri berezidun ondare-tresnatzat kalifikatu behar badira kontabilitate-irizpideen arabera, aukeratu ahal izango dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 88. artikuluan xedatutakoa aplikatzea —2023ko abenduaren 31ra arte indarrean zuen edukiaren arabera.

Aukera bera emango zaie Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-araudiaren mende ez

"Trigésima quinta. *Aplicación de las deducciones reguladas en el artículo 66 quater de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades como consecuencia de lo dispuesto en el Capítulo III del Título VI de dicha Norma Foral, cuando las aportaciones a las agrupaciones de interés económico constituidas con anterioridad al 1 de enero de 2025 deban ser calificadas como instrumentos de patrimonio con características especiales conforme a los criterios contables.*

Los y las contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que apliquen las deducciones reguladas en el artículo 66 quater de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades como consecuencia de lo dispuesto en el Capítulo III del Título VI de dicha Norma Foral, y cuyas aportaciones a las agrupaciones de interés económico constituidas con anterioridad al 1 de enero de 2025 deban ser calificadas como instrumentos de patrimonio con características especiales conforme a los criterios contables, podrán aplicar lo dispuesto en el artículo 88 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas en la redacción del mismo vigente hasta el 31 de diciembre de 2023.

La misma posibilidad se otorgará a los socios y a las socias de Agrupaciones de Interés

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

dauden ekonomia-intereseko elkartzeetako bazkideei, kontabilitate-irizpideen arabera ezaugarri berezidun ondare-tresnatzat kalifikatu behar diren ekarpenak egiten dituztenean».

Económico que no estén sometidas a la normativa foral del Territorio Histórico de Bizkaia cuyas aportaciones deban ser calificadas como instrumentos de patrimonio con características especiales conforme a los criterios contables."

Hogeita hamasei. Gehitu egiten da hogeita hamaseigarren xedapen iragankorra, eta hau izango da haren edukia:

Treinta y seis. Se añade una nueva disposición transitoria trigésima sexta, con el siguiente contenido:

«Hogeita hamaseigarren xedapen iragankorra. *Murrizketen mugak, gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen eta kontribuzioengatik.*

"Disposición transitoria trigésima sexta. *Límites de reducción por aportaciones y contribuciones a sistemas de previsión social.*

2024rako bakarrik, gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen eta kontribuzioen ondoriozko murrizketen mugak aplikatzeko, foru-arau honen 71.1.b) artikuluan aipatzen den mugaren barruan zenbatuko dira ekarpen hauek: Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginaren 67. artikuluaren 1. apartatuaren a) letran ezarritako pentsio-plan sektorialei egindako ekarpenak, beren jarduera dela-eta plan horietara atxikitzen diren norberaren konturako langileek edo autonomoek egindakoak; Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginaren 67. artikuluaren 1. apartatuaren c) letran ezarritako norberaren konturako langileen edo autonomoen enpleguko pentsio-plan sinplifikatueei egindako

Con vigencia exclusiva para 2024, a los efectos de la aplicación de los límites de reducción por aportaciones y contribuciones a sistemas de previsión social, las aportaciones a los planes de pensiones sectoriales previstos en la letra a) del apartado 1 del artículo 67 del texto refundido de la Ley de Regulación de los Planes y Fondos de Pensiones, realizadas por las personas trabajadoras por cuenta propia o autónomas que se adhieran a dichos planes por razón de su actividad; las aportaciones a los planes de pensiones de empleo simplificados de personas trabajadoras por cuenta propia o autónomas previstos en la letra c) del apartado 1 del artículo 67 del texto refundido de la Ley de Regulación de los Planes y Fondos de Pensiones y las

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: E9BX-SJZT-MHQ5-DZLM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

ekarpenak, eta norberaren konturako langileek edo langile autonomoek lehentasunezko enpleguko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei egindako ekarpenak».

aportaciones a las Entidades de Previsión Social Voluntaria de empleo preferente realizadas por las personas trabajadoras por cuenta propia o autónomas se computarán dentro del límite a que se refiere el artículo 71.1.b) de esta Norma Foral."

Bigarrena. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, berridatzi egiten da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 41.2 artikuluaren d) letra, eta honela geratzen da idatzita:

Segundo. Con efectos desde el 1 de enero de 2025, se da una nueva redacción a la letra d) del artículo 41.2 de la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, que queda redactada en los siguientes términos:

«d) Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 6. artikuluan aipatzen diren enpresen edo partaidetzen eskualdaketetan, enpresan edo taldeko entitate batean edo batzuetan lan egiten duen edo duten langile baten edo batzuen alde egiten direnean, baldin eta aurreko letran ezarritako baldintzak betetzen badira, eta kontuan hartuta honako espezialitate hauek:

